

UROLA GARAICO 2017-2021 PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEKO ASISTENTZI TEKNIKOAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOEN PLEGUA.

I.-SARRERA ETA AURREKARIAK

Urola Garaiak onartutako azken Plan Estrategikoa 2009koa da. Bestetik, 2012an barne-berriskupena eta eguneraketa gauzatu zen:

- 2009: Urola Garaiko Plan Estrategikoa (Ikei)
- 2010: Urola Garaiko sektore Soziosanitarioaren Plan Integrala (Prospektiker)
- 2011: Erronka eta Aldagai ekonomikoen berrikuspena.(Infocenter)
- 2011: Eskualdeko Turismoaren Dinamizaziorako Plana (Geotech)
- 2012: Enplegu Plan Estrategikoa (Deloitte)
- 2013-tik aurrera, gaur egun gauzatzen ari garen sektore zehatzetako estrategien lanketa:
 - Onbideratu: Ortoprotesika, Errehabilitazio robotiko eta laguntza teknikoen sektorearen garapena. (2014)
 - Bertatik Bertara: Baserriko produktuen ekoizpena eta tokiko kontsumoa sustatzeko lehen sektorearen estrategia propioa.(2014)
 - Eskualdeko Industria biziberritzeko Plana. (2016)

Izan ere, gerora Plan zehatzak landu dira eta baita 2009ko planean finkatutako proiektu edo lerroen garapenak eta berrikuspenak, baina ez da ikuspuntu integral batekin eta eragile ezberdinen arteko elkarlanean Plan Estrategiko eguneratu bat landu.

2009 geroztik asko aldatu da egoera sozioekonomikoa eskualdean eta lehen Plan estrategikoan finkatutako hainbat erronka amortizatuak daudela esan genezake ere. Batzuetan %100 inplementatu direlako eta beste batzuk bideragarritasun ezarengatik alboratuak izan direlako.

Momentu honetan, eskualdearen garapena mugatu dezaketen hainbat faktore daude identifikatuak, eta hauei aurre egin beharko die eskualdeak, bereziki azken urteetan enpresa haundien deslokalizazioak utzitako egoeraren aurrean (Arcelor, Gerdau/Sidenor, SFP, Sarralde..).

Urola Garaiko Garapena mugatzen duten faktoreak:

- (1) Enpresa handien deslokalizazioak/itxierak eta lanpostu industrialen suntsitzea: Urola Garaian, Industria sektoretik datorren langabezi maila, Gipuzkoan ematen denaren oso

gainetik dago, 8 puntu gainetik alegia. (UG: 23,9%, GI: 15,5%). Bestetik, 2009 geroztik eta Arcelorren inpaktua kontutan izanik, Urola Garaiak bere lanpostu industrialen %27,5 galdu du.

- (2) Traktorak diren enpresa eza.
- (3) Industria guneen hazkunde mugatua, bereziki espazio industrial hutsen berrerabilpenerakocdauden zailtasunegatik.
- (4) Industria Jardueran G+B integrazio eskasa.
- (5) Talentu lhesa eta lan-merkatuan inpaktu gutxiko enpresa sorrera.
- (6) Biztanlegoaren gutxitzea eta etorkizuneko egoera demografikoa irudikatzen duten adierazleak:Zahartze adierazlea eta Menpekoatsun adierazlea Gipuzkoako indizeen gainetik, eta Ordezkapen adierazlea azpitik.

Eskualdeko Garapena sustatu dezaketen faktoreak:

- (1) Hiriburuekiko eta beste erakarpen guneekeko erdiguneko kokalekua.
- (2) Errepide eta Trenbide bitarteko konexio onak.
- (3) Osasun azpiegitura dentsitate altua eta arlo Soziosanitarioan dinamismo nabarmena.
- (4) Enpresa txiki eta ertainen esperientzia eta ezagutza maila altua, Barnekintzailtza ahalbidetu dezakena.
- (5) Susperraldian dauden arloetan formakuntza indartzea: Soziosanitarioa, Robotika eta Enplegu berdea.
- (6) Errehabilitazio Robotiko, Laguntza Tekniko eta Ortoprotesikarekin loturiko Industria baten garapena.

Fokoa arlo Sozioekonomikoan jarrita, 2017-2021 PLAN ESTRATEGIKOAK, eskualdearen behar, erronka eta aukerei erantzungo dien tresna izan beharko du;

- Lanpostuen aztarnategi berriak eta kalitatezko lanpostuak sortu ahal izateko beharrezkoa den testuingurua deskribatzen duena
- Arlo Sozioekonomikoan eskualdean garatu daitezken egitasmo estrategiko berriak marrazten dituena.
- Tokiko ekonomiaren eta enpresa ehunaren aukerak optimizatzeko bide-orria proposatzen duena.

Prozesuak, MAHAI SOZIOEKONOMIKO partehartzaile bat martxan jartzea behar du, denboran egonkorra izateko helburuarekin sortuko dena. Plan Estrategikoaren antolakuntza fasean erbakiko da Mahaiaren behin-betiko konfigurazioa benetan ordezkaritza nahikoa eta partehartze zabala bermatuko duena. Printzipioz, MAHAI SOZIOEKONOMIKOAREN rola honakoa izatea proposatzen da:

- Eztatbaida zehatzetarako Lan-Taldeak proposatu

- Fase bakoitzean, proposamenak egin eta sortzen diren dokumentuak balidatu.
- Jarraipena eta Ebaluazioa: behin Plana onartuta, urtean bitan proposatuko dira bilerak jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

II.- KONTRATUAREN XEDEA ETA KONTRATAZIOAREN EDUKI TEKNIKOAK

El objeto del presente pliego es la contratación de los servicios necesarios para la redacción del Plan Estratégico de Urola Garaia. Los contenidos de dicha asistencia técnica son los siguientes:

1. FASEA: ANTOLAKUNTZA ETA ABIAN JARTZEA

- 1.1. Talde Teknikoaren konfigurazioa
- 1.2. Mahai Sozio-Ekonomikoaren konfigurazioa.
- 1.3. Lan-taldeak osatu.
- 1.4. Koordinaziorako eta Informazioa lantzeko eta irizpideak definitu.
- 1.5. Eskualdeko Eragile Sozioekonomiko gakoak identifikazioa.
- 1.6. Komunikazio eta partehartze estrategia definitu
- 1.7. Plangintzaren sustapena eta abian jartzeko jarduerak

2. FASEA: MARKO ESTRATEGIKOAREN DEFINIZIOA

- 2.1. Misio eta Bisioaren definizioa.
- 2.2. Kanpo Analisia:
 - Erreferentzizko esperientzien dokumentazioa eta talde estrategikoen definizioa.
 - Tendentzi orokorren analisia.
- 2.3. Barne Analisia:
 - Identifikatutako arlo estrategikoekin erlazionatzen diren eskualdearen ezaugarriak.
 - Eskualdeari eragiten dizkien arazoak identifikazioa.
- 2.4. Analisi Estrategikoa:
 - Informazioaren kontrastea.
 - AMIAren diseinua.
 - Egoera (eszenatoki) ezberdinen lanketa eta arazoak identifikazioa.
 - Mahai Sozio-Ekonomikoan emaitzen ezaugarriak.
 - Ondorioak eta Lerro Estrategikoen definizioa.

3. FASEA: PLANAREN DISEINUA.

- 3.1. Planaren helburu eta ekintza estrategikoen definizioa:
 - Mahai Sozio-Ekonomikotik sortutako lan-taldearen bilerak.
 - Planaren helburuen lanketa eta definizioa.
 - Helburu bakoitzarentzako ekintzen lanketa eta definizioa: Plan Estrategikoen zirriborroa.
- 3.2. Ezaugarriak eta Hobekuntzak:

- Eragile sozioekonomiko eta instituzional gakoei Planaren zirriborroa helarazi eta azaldu.
- Hobekuntzak jaso eta barneratu: Plan Estrategiko definitiboa.

4. FASEA: ONARPENA ETA DIFUSIOA

- 4.1. Plan Estrategikoaren aurkezpena eta onarpena Mahai Soziosanitarioan.
- 4.2. Plan Estrategikoaren aurkezpena eta onarpena Urola Garaiko Mankomunitatean
- 4.3. Difusioa eta hedapena.

5. FASEA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- 5.1. Jarraipena:
 - Planaren jarraipenerako irizpideak finkatu.
- 5.2. Ebaluazioa:
 - Ebaluaziorako balioko duten indikadoreak, arduradunak eta maiztasuna definitu.

III.- PROPOSAMENAK ETA HAUTAKETA

Enpresa esleipendunak bere proposamenik onena egingo du plegu honen edukiaren arabera, zerbitzua egiteko egokientzat jotzen duen baliabide teknikoak eta giza baliabideak ezarriz, aurreko puntuan aipatutako kontratuaren xedeari erantzuteko.

Enpresa esleipendunak, halaber, egindako beste esperientzia batzuei buruzko erreferentziak aipatu beharko ditu, batez ere proiektuaren xedearen ingurukoak. Ildo horretan, gida zuzentzeko profesional kualifikatu bat izendatu beharko du, zeina ezingo den ordeztu, UGGASAREN aldetik izendatutako arduradunen aurretiazko baimena egon ezean.

Proposamenak aurkezteko azken data da **2017ko Martxoaren 15a, (12:00 PM)**. Proposamenak posta elektronikoz bidali beharko dira, uggasa@uggasa.eus helbidera, eskaintza aurkezten duen enpresak behar bezala sinatuta eta zigilatuta. Halaber, eskaintza paperezko formatuan bidali beharko da posta arruntez, Patrizio Etxeberria 3, Entplta 20230 LEGAZPI helbidera.

Plan Estrategikoa egiteko enpresaren hautaketa ondoko taulan jasotako irizpideen eta pisuen arabera egingo da:

Irizpideak	Pisua
Proposamenaren ikuspegi metodologikoa eta ekintzarako orientazioa (<i>3.Fasearen despliega</i>)	25%
Eskaintza ekonomikoa	20%
Lanean parte hartzen duen taldearen esperientzia eta ibilbidea	20%
Genero perspektiba sartzea	15%
Hobekuntzak	15%

IV.- PROPOSAMENEAN ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Proposamena honako dokumentazio honekin aurkeztuko da:

- a. Proposamen teknikoa: lanaren memoria eta programa
- b. Baliabide teknikoak eta giza baliabideak
- c. Proposamen ekonomikoa.

Memoriak plegu honen xede diren lanak egiteko moduari buruzko deskribapen osatu bat izango du, eta behar bezain zabala eta argia izango da; aurreikusitako jardueretako bakoitza zehatz-mehatz aurkeztuko dira, eta, aldi berean, lanaren osotasuna islatuko da, irakurketa bakar batean berari lanari ezagutza osoa lortu ahal izateko moduan.

Lan Programan berariazko adierazpen formal bat sartuko da Pleguaren xede diren lan guztiak amaituta egoteko epeari dagokionez, lizitazioaren iragarkian aurreikusitako epearen barruan. Halaber, lana osatzen duten atal bakoitza zein epetan egon daitezkeen ere adieraziko da.

Enpresa lizitatuzaileek lana egiteko duten pertsona taldearen zein ekipamendu teknikoaren zerrenda zehatza aurkeztu behar dute eskaintzan, bai kabineteko lanerako bai landa lanerako, eta beharrezko datu guztiak emango dituzte, horien artean egonik atal baita ere, zeinean adierazi eta deskribatuko diren Plegu honen xedekoaren antzeko lanak eta azterketak, baldin eta aipatu lantaldeko kideetako bakoitzak pertsonalki lan egin badu horietan. Titulazio akademikoaren, lan esperientziaren eta euskararen ezagutzaren egiaztapenak.

Halaber, lanaren zati bat gauzatzeko enpresatik kanpo izendatutako kanpoko langileen zerrenda bat ere aurkeztuko da, kasua balitz. Adierazi beharko dira izena, erreferentziak eta aurrekontu osoarekiko azpikontratazioaren zenbatekoak hartzen duen portzentajea. Aholkularitza esleipendunak aurkeztu beharko ditu:

- a. Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzeke dokumentazioa eta, kasua bada, bere ordezkartzarena.
- b. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeke dokumentazioa.
- c. Kaudimen teknikoa egiaztatzeke dokumentazioa.
- d. Kontratatzeke debekuan sartuta ez egotearen gaineko berariazko erantzukizuneko adierazpena, Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 20. artikularen arabera.
- e. Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela egiaztatzeke ziurtagiria.

V.- KONTRATAZIOAREN PREZIOA ETA LANA EGITEKO EPEA.

Bertan deskribatutako azterketak egiteko aurkezten den enpresak proposamen ekonomiko bat egingo du, kontratazioaren gehieneko prezioa izanik 29.750 euro (BEZa aparte).

Lana osorik egiteko eta entregatzeko aurreikusitako gehieneko epea 2017ko ekainaren 30a izango da.

Ordainketa bi faktura ordainduz egingo da; lehenengoa %35ekoa izango da, eta kontratua formalizatzean ordainduko da, eta bigarrena, %65ekoa, lanak egin ondoren, lanak aurkeztu eta UGGASAk zuzen egin direla aurretiaz balioztatu eta gero.<0>

VI.- LANEN DOKUMENTAZIOA ETA HIZKUNTZA

Proiektuan zehar egindako txostenak, ekarpenak eta azterketak euskaraz eta gaztelaniaz entregatuko dira, bai paperean, behar bezala koadernatuta, bai euskarri magnetikoan, office formatuan, tratamendua, ustiapena eta erreprodukzioa ahalbidetu ahal izateko.

VII.- KONFIDENTZIALTASUNA

Hautatutako enpresak konpromisoa hartzen du berariaz kontratua betetzearen ondorioz ezagutu dezakeen edozein datu eta informazioren gaineko erabateko konfidentzialtasuna eta erreserba mantentzeko, batez ere datu pertsonalei dagokienez, eta ezingo ditu horiek kopiatu edo erabili baldintza hauetan adierazten xedea ez den beste baterako, ezta ere prozesuan parte hartzen duten beste batzuei laga, ezta kontserbatzeko helburuarekin, interesdunen idatzizko baimena izan ezean.